



2014-01-12 Urtarrileko batzarra- Asamblea Enero

URTARRILARENAKTA (2014/01/12)

Akta jasotzen du Irun 1 taldeak

Recoge el acta el grupo Irun 1

1. EGINDAKOAK / LO QUE SE HA HECHO

LANDAKETA / PLANTACIÓN:

Tipula / Cebolla

EREIKETA / SIEMBRA:

Ilarra (3 kg) eta babak (3 kg). Erdia Amuten eta beste erdia Arrokan

3 kgde guisante y 3 de habas, la mitad en Amute y la otra mitad en Arroka

Baratxuria (70 kg????) / Ajo (70 kg????)

KANALAK GARBITU San Antonio eta Amuten / LIMPIEZA DE CANALES en
San Antonio y Amute

DESBROZA

Arrokako goiko partean / *En la parte de arriba de Arroka*

2. EGIN BEHARREKOAK / LO QUE HAY QUE HACER

Kanalekin jarraitu behar da / *Hay que seguir con los canales*

Lagun batek proposatzen du kultiboa handitzea, denetatik, gehiago. Bilera orokorran aztertuko da / *Un compañero propone ampliar el cultivo, más de todo. Se estudiará en la reunión general.*

3. XIXARETIK JOATEN DIRENAK ETA ITXARON ZERRENDA / QUIENES SE VAN DE XIXARE Y LISTA DE ESPERA

9 lagun inguru joan nahi dute eta galdera batzuk sortzen dira: Nola? Noiz? Proposatzen dira aukera batzuk taldea uzteko:

- a) Nahi duenek joan daitezke, urtea betea daukate eta.
- b) Jarraitu saskia jasotzen (eta ordaintzen) taldean parte hartu gabe, adibidez auzolanetan
- c) Geratu taldean ordezkari bat aurkitu arte

Taldeko arduraduna lagun hauekin jarriko da harremanetan jakinarazteko aukerak. Gero, bakoitzak, komunikatu behar du bere erabakia.

Alrededor de 9 personas quieren abandonar el grupo y surgen algunas preguntas: ¿Cómo? ¿Cuándo? Se proponen varias opciones para dejar el grupo:

- a) *Quienes quieran pueden irse, ya que ya han cumplido e laño*
- b) *Continuar recogiendo cesta (y pagando) aunque no se participe en el grupo, en los auzolanes, por ejemplo*
- c) *Quedarse en el grupo hasta encontrar una persona que le sustituya*

El responsable del grupo ha de ponerse en contacto con estas personas y proponerle las opciones. Después, que cada persona comunique su decisión

9 lagun joan nahi dute eta, horietatik, hiruk ordezkaria dute. Beraz, 6 saski huts geratzen dira. Itxaron zerrendan 3 pertsona daude (Matxalenen lagun bat, Endikaren lagun bat eta Hendaiaiko beste pertsona bat) Beraiekin hitz egin behar da aurkezteko gure kooperatibaren filosofia: Zeintzuk gara, nola diren talde lanak, noiz egin behar den lana, ez garela kontsumo talde bat, etab. Ekonomia batzarran erabakitako aldaketak argi utzi behar direla azpimarratzen da.

Nork hitz egingo du pertsona hauekin? Matxalen bere lagunarekin: Endiak, bere lagunarekin eta Markok Hendaiaiko lagunarekin.

9 personas quieren dejar el grupo y, de ellas, 3 tienen sustituto. Por lo tanto, quedan 6 cestas libres. En la lista de espera hay 3 personas (una amiga de Matxalen, un amigo de Endika y una persona de Hendaia). Hay que hablar con ellos para presentarles la filosofía de la cooperativa: Quiénes somos, cómo son los grupos de trabajo, cuándo hay que trabajar, etc. Se subraya que los cambios decididos en la reunión económica queden claros.

¿Quién hablará con estas personas? Matxalen con su amiga, Endika con el suyo y Marko con la persona de Hendaia.

Bazkide geureganatu operazioa / Operación captación de socios

“Ahoz ahokoa” bizkortu

Triptikoa aldatu berritasunekin eta zabaldu

Aldatsa kooperatibaren itxaron zerrendan daudenei proposatu gurekin etortzea

Activar el “boca a boca”

Modificar el tríptico con las novedades y difundirlo

Proponer a las personas que están la lista de espera de Aldatsa venir con nosotros

4. BUROKRAZIA

Frantziako legeak aldatu egin dira eta, dirudienez, debekatuta egongo da 20 orduko kontratu baino gutxiago egitea. Nola gure langileek 10 orduko kontratua daukate, egokitu behar gara egoera berrira. Datorren asanbladarako gehiago jakingo dugu, orduan, han erabakiko dugu zerbait.

Las leyes francesas han cambiado y, al parecer, estará prohibido hacer contratos de menos de 20 horas. Nuestros trabajadores tienen un contrato de 10 horas, por tanto, habrá que adaptarse a la nueva situación. Para la próxima asamblea se sabrá algo más, por tanto, allí se decidirá.

5. ASANBLADA OROKORRA / ASAMBLEA GENERAL

Urtean egindakoa eta egin beharrekoa aztertu behar da. Baita ekonomia batzarran hartutako erabakiak ere (txanda sistema berria, etab.)

Inkesta batzuk prestatuko dira (Leirek moldatuko ditu iazkoak), jasoko ditugu mailen bidez eta prest eramango ditugu batzarra.

Batzordeko kideak aldatuko dira (Kudeaketa, tomate, etab) eta taldeko arduradunak era bai.

Hay que analizar el trabajo realizado a lo largo del año, así como el trabajo venidero. También se analizarán las decisiones tomadas en la reunión económica (nuevo sistema de turnos, etc.)

Se prepararán unas encuestas (Leire adecuará las del año pasado), que recibiremos en el correo electrónico y llevaremos preparadas a la reunión.

Cambiarán los miembros de las comisiones (Gestión, tomate, ...), así como los responsables de cada grupo

NOIZ? ¿CUÁNDO? Martxoaren 22an / 22 de Marzo

NON? ¿DÓNDE? Irungo AEKn

NOLA? ¿CÓMO?

Gosari informal batekin hasiko gara, 8:30tatik 9:30ak arte. Gosaria bukatu eta gero, asanblada, 9:30tatik 13:30ak arte. Eta gero BAZKARIA?

Empezaremos con un desayuno informal, de 8:30 a 9:30. Después del desayuno, a las 9:30, comenzará la asamblea, que durará hasta las 13:30. Y luego: COMIDA?

6. TALOGINTZA TAILERRA / TALLER DE TALOS

Data finkatu gabe dago. Asmoa zen Landetxako auzoelkartean egitea. Hau ere finkatu gabe dago.

8 lagun interesatua daude, beraz, beraien artean erabakiko dute noiz eta non, kontuan hartuta Marken ordutegiak (larunbata arratsaldean eta asteazkenetan)

Interesatuak, aparte hitz egingo dute. Leirek jasotzen du zerrenda.

La fecha está sin fijar. La intención era hacerlos en la Asociación de Vecinos de Landetxa, aunque este punto tampoco está fijado.

8 personas están interesadas. Entre ellas decidirán cuándo y dónde, teniendo en cuenta los horarios de Mark (sábados por la tarde y miércoles)

Las personas interesadas lo decidirán. Leire está recogiendo la lista.

7. BASHERRIAK

Hilaren 16an batzarra izango da Ataunen. Dirulaguntzak kontrataziorako bukatu egin dira. Hala ere, beste dirulaguntza bat egongo da.

8. HURRENGO HITZORDUA / PRÓXIMA CITA

Otsailaren 2an. 9:00etan, auzolana eta 12:00etan bilera

2 de Febrero. a las 9:00 auzolan y a las 12:00 bilera

9. DESBROZADORA

Oraindik, langileek ez dute erabaki zein erosi. Begiratzen ari dira.

Los trabajadores aún n han decidido cuál comprar. Seguirán mirando.

10. KONTUAK / CUENTAS

Emiliok egindako urteko laburpena denok jaso dugu mailen bidez. Momentu honetan 4000 eta piko euro ditugu.

Todos hemos recibido el resumen anual de Emilio. En este momento, tenemos 4000 y pico euros

11. IRUN 1 TALDEA DESAGERTZEN DA / DESAPARECE EL GRUPO IRUN 1

Geratzen direnak, Amaia eta Pati, Xespirren taldean sartzen dira.

Las que quedan, Amaia y Pati, entran ene l grupo de Xespir